

Larunbata arratsaldean sagardoa eta bertsoak izango dira nagusi

Iraila eta urrian Ezkio-Itsason eta inguruetan bildutako sagarrak Igartubeitira eramán, aurten baserriaren eguna ospatu, Sagardoaren Astea, bertan sagarra antzinako erara zanpatu, kupeletan sartu... eta urtero martxoa hasiera inguru arte itxaroten dute Ezkio-Itsasoko bizilagunek herrian egindako sagardoa dastatzeko. Dastaketa Barrikote batekin ospatzen da gurean eta aurtengoa larunbata honetan izango da, martxoak 6, iaz bezala aldi berean Martxoan Bertsoa-ko kanporaketa bat aurrera eramango delarik, hirugarrena konkretuki.

Horrela, Igartubeiti Baserri Museoak barrikotea eta martxoan bertsoko kanporaketa antolatu du, Yartu kultur elkartea eta Urretxu-Zumarragako bertso eskolaren lankidetzarekin. Festa larunbata honetan ospatuko da eta arratsaldeko 19:00etan hasiera emango diote bertsolarien saioarekin. Hau amaitzerakoan, 20:30ak inguru, urrian Igartubeitin egindako sagardoaren dastaketa hasiko da afari-merienda gisa.

Aurten ere giroa alaituko duen trikitixa ez da faltako eta parte hartu nahi duten guztiak arazorik gabe Igartubeitin egoteko aukera izan dezaten, arratsaldeko 18:30etan, doako autobus zerbitzua eskainiko da Zumarragako elizatik baserrira joateko. Animatu zaitzete eta festa honetan parte hartu!